

B

BARREN

TOKIKOM

Ezinik ez

Gaizka Loiola,
Espainiako txapeldun itsuen eskian






Matrikulazio epea zabalik

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141

www.elgoibarkoelgoibarko.net

Elgoibar Arreiturre BHI 2014-2015 ikasturtea

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
Osasun zientziak
Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
Gizarte zientziak
Humanitateak

AUREMATRIKULAKO DATAK:
MAIATZAREN SETIK 15ERA

GURASOENTZAT BILERA IREKIA EZENARROKO ARETOAN:
MAIATZAREN 12AN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN
IKASLEENTZAKO ATE IREKIAK , EGUN BEREAN ARRATSALDEKO 17:00ETAN



Elgoibar Arreiturre BHI
Arreiturre 2
Tel: 943 748 387
E-posta: 013421aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.net



ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

Larunbata 10 denok Donostiara!
18:00etan Konstin

EMAN BOTOA  **ehbildu**
herrikerabaki





Jose Luis
Azpillaga

Aupa, Amaia, zer moduz? Ikasturteko azken txanpari ekiteko gogoz? Animo, beharko dugu eta! Dakizunez, orain hilabete inguru, euskarararen V. Mapa Soziolinguistikoaren berri eman dute. Horri heltzeko asmotan natorkizu gaur.



Amaia
Larrañaga

Maparen ondorioen artean badira argi-ilunak. Argien artean, aipatzekoak dira, esaterako, EAEko euskaldunen ehunekoak 14,5 puntuko hazkundea izan duela 30 urte hauetan: 1981ean, % 21,9 ginen euskaldunak; 2011n, berriz, % 36,4. Gainera, 5 eta 19 urte bitarteko umeen eta gazteen % 70 baino gehiago euskalduna da gaur egun; 1981ean, ordea, ez ziren % 20ra iristen. Bestetik, 30 urtetik beherako gazte euskaldunen erdiek baino gehiagok erdara dute lehen hizkuntza (% 58). Hor ikusten da hezkuntzaren aldetik egin den ahaleginaren fruitua.

“Baztarrikak dio euskararen geroa inoiz baino neurri handigoan geure esku dagoela. Hala ote benetan?”

Alderdi ilunen artean, ordea, honakoak aipatu behar: batetik, gune soziolinguistikoei dagokienez, gutxiago dira euskaldun oso gutxi dauzkaten herriak, baina euskaldun asko dituztenak ere bai. Euskararen arnasguneak (euskaldunak % 80 baino gehiago diren udalerriak) murriztu egin dira. Bestetik, euskaldunen % 63 etxe euskaldunetan bizi zen duela hogei urte; gaur egun, ordea, % 40 baino gutxiago. Hau da, hamar euskaldunetatik sei erdaldunekin batera bizi da. Ondorioz, euskaldunak, gaur egun, erdaldunen artean sakabanatuta bizi gara. Gehienak gutxiengoan, bai herrian, bai etxean. Beraz, ez da harriztekoa, V. Mapak dioen moduan, etxeko erabilerak gora ez egitea. Zehatzago esanda, maparen arabera, etxeko erabilerak behera egin du: 1991n EAEko biztanleen % 21,8k erabiltzen zuen euskara etxean, eta % 20,8k 2011n.

Patxi Baztarrikak, V. Maparen aurkezpenean, honela laburbiltzen zuen ondorio nagusia: “Euskararen etorkizuna inoiz baino neurri handiagoan dago geure esku: egiten dugunaren edo egiteari uzten diogunaren esku, euskal herritarren esku, eta bereziki euskadunon esku”. Hala ote benetan?

Hau da zenbaki dantza, J.Luis! Batzuk dantzan jartzeko modukoak, hala nola, euskaldun kopuruak % 22tik %36ra egin izana, izan ere, kopuru horren hazkundean euskaltegiaren dihardugunon lanak ere izango du zerikusirik, eta sarri izaten ez bada ere, noizean behin geure burua poztea ere mezezi du. Hau guztia, jakina, hotzean begiraturata, zeren eta hazkunde hori 30 urtean izan dela kontuan hartzen badugu eta horren inguruan egin den lana aitzat hartzen badugu, niri behintzat, ihes egiten dit dantzarako gogoak.

Aipatu duzun beste datu batek ere, dantzarako gogoak ez ezik, musika jartzekoa ere kendu dit: EAE, etxean, gero eta gutxiagok erabiltzen dute euskara. Horrek esan nahi du etxeko bizimoduan, sukalde askotan, gozotasuna galtzen ari garela, nire ustez etxeko harremana, batez ere, guraso eta seme-alaben artekoa, dantza lotu-lotua baita, eta horretarako ezinbesteko musika hizkuntza da. Honen aurrean, lehengoan, BE-RRRIAn, Petxarromanek zioen bezala, *Jalgi hadi plazaratik itzul hadi etxera* aldarrikatu beharko dugu.

“Nor-nori-nork irakasteaz gain, horrekin gozaten irakasten ere saiatzen gara”

Hala ere, J.Luis, nik neuk dantzan egin nahi dut, eta hau, beti hala ez izan arren, neure esku dago, eta, orain arteko moduan, dantzan eginarazten ere saiatuko naiz, batzuetan “arazi” horrek “behartu” esan nahiko du, eta, beste batzuetan, “gozatu”. Azken hori gehienbat gure lanean, izan ere, nor-nori-nork irakasteaz gain, horrekin gozaten irakasten ere ahalegintzen gara; batzuetan lortzen dugu, besteetan ez, baina jarrai dezagun dantzan!



II. URTEURRENA

ANGEL MARI ARREGI CANO

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

“Enarak bueltau dittuk eta hire izena ekarri juek mokoetan”

Koadrilako lagunak



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaldua Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Danele Sarrigarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

XXI. J.Gurutzaga krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu apirilaren 6an ospatutako XXI. J. Gurutzada Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Iturri taberna, Usua kafetegia, Jai Alai, Arkupe, Tantaka, Mahats ardotegia, Ametsa kafetegia, Larre, Original Komunikazio Grafikoa eta batez ere Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Goki erreformak, Alkorta, Egile, Danobat, Kutxabank, BM, Diario Vasco, Biena aroztetgia, Elgoibarko Lagun Taldea, Egotoki, eta Gare Radio Club.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu zuten neska-mutilei ere.

Datorren urtean apirilaren 26an ospatuko den XXII. J. Gurutzaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurutzada Krosa Batzordea ☺

Ekainak 8: Gure Esku Dago!

Erabakitzeko eskubidearen alde!

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko genizueke *Gure Esku Dago* dinamikan parte hartzeko konpromisoa hartu duzuen elgoibartar guztioi, eta bide batez, hainbat gauza azaldu eta konkretatu nahiko genituzke.

Hasiera batean, ekainaren 8ko giza-katean parte hartzeko motxila eta peto bana banatuko zitzaizuela komentatu genizuen, baina egun, Ertzaintzak ez du beharrezko ikusten petoa jantzi beharra errepidean egoteko, eta arrazoi desberdinak tarteko, material horren banaketa bertan behera uztea erabaki da. Horren ordez, behin ekainaren 8a pasatu ostean, giza-katearen inguruko orogarri bana jasoko duzue metroa erosi duzuenok.

Halaber, 16 urtez beherako haurren parte-hartzea kudeatzeko orduan nahasmena egon da, eta hasieratik ez zen argi gelditu metroa erosi behar zuten edo ez. Hausnartu ostean, Elgoibarko taldeak umeei metroa kobratzea erabakiazuen, hala ere, egoera ekonomikoaz jabetuz, erabaki dugu familia bakoitzaren esku uztea umeen metroa erosi edo ez.

Bestalde, autobusak antolatuko ditugu ekainaren 8an Elgoibartik Bergarara joateko eta bueltatzeko. Giza-katea 12:00etatik 12:30era izango da, baina lekuan bertan gutxienez ordu-

bete lehenago egon beharko garenez, Elgoibartik 9:00ak aldean irtengo dira autobusak (ordu zehatza aurrerago jakinaraziko zaizue) eta bueltatzeko bi aukera egongo dira, giza-katea amaitu ostean, hau da 13:00ak aldera-edo bata, eta 19:00ak bueltan bestea, Bergaran egun pasa egin nahi dutenentzat (Bergaran Gure Esku Dago ekimenaren baitan hainbat ekintza antolatu dituzte egun horretarako. Egitarau zehatza bidaliko zaizue).

Autobus zerbitzua ganoraz antolatu ahal izateko, autobusetan joango den jende kopurua zenbatu behar dugu, eta bakoitzaren bueltatzeko ordua zehaztu. Beraz, mesedez, elgoibarged@gmail.com helbidera idazteko eskatzen dizuegu ondorengo adieraziz: autobusa erabiltzeko asmorik bai edo ez, zenbat pertsonak (umeak eramateko asmoa duzuen ala ez) eta bueltatzeko aukeratutako ordutegia. Autobus zerbitzuaren kasuan, beste edozein ekimenetarako egiten den moduan, norberak bere txartela ordaindu beharko du.

Besterik gabe, aurrerago azken orduko zehaztapenen berri emango dugu.

Elgoibarko Gure Esku Dago ☺

389€

LED 40" GRUNDING 40VLE4324BF
 FULL HD
 TDT HD
 100 Hz

729€

COMBI BOSCH KGN39X131
 386 LITRO
 NO FROST
 A++
 HATZEN KONTRAKO INOX

DYSON XURGAGAILUA
 Dyson xurgagailuak Service Allergie Suisse ziurtagiria duten bakarrak dira. (Aasma eta alergiaen kontrako erakunde liderra Suitzan)

Alergia arazoak dituzu?

MILAR BIRE Ubitarte 11
 943 741 487
 bire@milar.es

B
 BARRÉN

GIDA 2014
 Elgoibar - Mendara

**2014 KOMERTZIO
 ETA ENPRESEN GIDA**

**Elgoibar eta Mendaroko
 komertzio eta enpresen gida
 prestatzen dihardugu**

Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu **943 744 112** edo **943 743 704** zenbakira edo idatzi barren.publi@elgoibarkoizarra.com helbidera.

ESKERTZA

JUAN KRUZ IZAGIRRE MAIZTEGI

*Umoretsua ta atsegiña,
 lagun bezala, onena.
 Zure hitzekin alaitzen zendun
 inguruan zegoena.
 Nahiz bihotzian sentitzen dogun
 zu joatiaren pena,
 gure artian geldittuko da
 eskeiri diguzun dena.*

2014ko apirilaren 27an hil zen,
 65 urte zituelarik.

Errosario kaleko lagunak

Asmaola+ lehiaketa jarri dute martxan, enpresa industrialen ideia onenak saritzeko lehiaketa

Makina-erremintaren mendeurreneko ekintzen barruan kokatu du lehiaketa Udalak

Makina-erremintaren mendeurrenaren harira, Asmaola+ lehiaketa jarri dute martxan Berrikuntza eta Teknologia Transferentziarako Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeek [tartean, IMHK], Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eta Danobat Group Koop. E., Alcorta Forging Group S.A., Grupo Schaeffler, Grupo Egile, Grupo Maherholding eta Ferreteria Unceta S.A. enpresen babesarekin.

Euskal Herrian errotutako beste ekintza batzuk osatzera dator lehiaketa hau. Antolatzaileek gogorazi dute beste sektoreekin alderatuta, ekintzailetasun industrialak zailtasun handiak izaten dituela, proiektuak abiatzeko azpiegitura garestiak behar izaten direlako, besteak beste, eta jakina, finantziario arazo horiek traba handia izaten direla sari proiektua berriak sortzeko. Horregatik uste dute lehiaketa hau lagungarri izan daitekeela ekintzailetasun industrialak sustatzeko eta etorkizuneko erronkak "era arrakastatsuan" lantzen lagunduko duen eremua sortzeko. Lehiaketara aurkezten direnen artean bi sari banatuko dituzte. Batetik, enpresa industrial onena sarituko dute. 2.500 euro jasoko ditu dirutan irabazleak, eta horrezaz gain, honako hauek ere bai: 40 prestakuntza-ordu sustatzailearen beharren arabera 100 aholkularitza-ordu enpresa proiektua garatzeko, eta 300 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko. Bestetik, Euskadiko Lanbide Hezike-



tako ikasle eta ikasle izandakoek aurkeztutako enpresa industrial onena ere sarituko dute. 2.000 euro jasoko ditu dirutan, 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera, 50 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 100 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko. Ideia sarituek 18 hilabeteko epean gauzatu beharoko dira.

Informazio gehiagorako: <http://www.imh.es/eu/i-g-b/asmaola-plusideialehiaketa>.

Aitortza makina-erremintan egindako lanari



Makina-erremintaren mendeurrenaren barruan, sektore horretako eragileek egindako lana errekonozitu zuen joan zen astean Elgoibarko Udalak ekitaldi instituzional batean. Foru Aldundiko, Jaurlaritzako eta makina-erremintaren sektoreko eragileak batu zituzten udaletxean, eta ondoren mendeurrenaren harira kalean jarritako erakusketa inauguratu zuten, Katanarra arkuaren parean. Argazki hau inaugurazio ekitaldiaren ondoren atera zuten, bolatokian.

2013ko aurrekontuak EHBilduren kritika

2013ko Elgoibarko Udal aurrekontuak onartzeko lortu zuten akordioa ez duela bete leporatu dio EHBilduk Elgoibarko Udal gobernuari. "EAJk eta PSE-EEK ez dute inolaz ere bete lortu genuen akordioa. Aurkeztu genituen eta onartu zituzten emendakinak ez dituzte behar bezala garatu", salatu du koalizioak. Aurrekontuak herritarrekin batera lantzen jardun ostean, 2013ko udal aurrekontuei emendakin "dezente" aurkeztu zizkietela gogora ekarri du Elgoibarko EHBilduk: "Udal Gobernuak emendakin haietako asko onartzea erabaki zuen aurrekontuak babesten bagenituen, eta herritarrekin egin genuen lan guztia baloratua izan zela ikusirik, gure babesa eman genien aurrekontu haiei. Ez daude gustura, baina, emendakinek egin duten bidearekin, eta Udal Gobernuaren jarrera salatu dute. "Gure baietza lortu ondoren ez dute inongo erreparorik izan emandako hitza ez betetzeko", esan dute.

EHBilduk dio 2013an bertan behin baino gehiagotan salatu zutela ez zirela emendakinetan jasotakoa betetzen ari. "2013ko uztaileko udalbatzarrean EAJko bozeramaileak emandako erantzuna jaso genuen. Balorazio bat egitekotan, aurrekontuaren exekuzioaren balorazio oso bat egin beharko litzatekeela zioen. Une hori ailegatu da, eskuartean daukagu eta 2013ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa". Datu horiek "negargarritzat" jo ditu EH Bilduk. "Gure emendakin batzuek egin dute bidea, baina gehienetan bidean geratu edo erabat desitxuratu dira".

Proiektua ElgoibART

1990. urtetik gaur arte Elgoibarren atera dituen argazkien aukeraketa egin eta salgai jarri ditu Edu Arrilaga argazkilari elgoibartarrak. Argazki gehienak [aukeratutakoen %90 inguru] umeez parte hartzen duten ekintzetan egindakoak dira, baina badira tartean sokamuturrean atera-tako argazki ikusgarri asko ere, esate baterako. Argazki guzti horiek Pilon taberna ondoan jarri duen erakusleihoan erakutsiko ditu, eta horretarako telebista pantaila bat baliatuko du. Txuri-beltzean egindako argazkiak dira, eta interesatuek bi tamainatan erosi ahal izango dituzte paperean: 5 euroan tamaina txikian eta 15 euroan tamaina handian. Hala ere, argazkia formato digitalean erosteko aukera ere badago, 5 euroan. Argazki guztiak www.elgoibart.com webgunera ere igo ditu.



Arnaldo Otegi libre uztearen kontra egin du Espainiako Auzitegi Konstituzionalak

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ez du aintzat hartu Miren Zabaletak, Sonia Jacintok, Arkaitz Rodriguezek eta Arnaldo Otegik aske lagatzeko aurkeztu zuten helegitea. Lehenengo hirurek beteak dituzte zigorraren hiru laurdenak, eta Auzitegi Gorenaren iazko sententzia etetea eskatua zuten horregatik. Otegik hilaren amaieran beteko ditu hiru laurdenak, eta horrek ere aurkeztua zuen helegitea. Konstituzionalak astelehenean eman zuen erabakiaren berri. Horrenbestez, Arnaldo Otegik eta auzi berean kartzelaraturako beste hiru lagunek espetxean jarraitu beharko dute iaz Auzitegi Gorenaren epaiaren aurka aurkeztu zuten beste helegitea erabaki bitartean.

Bikotekiderik gabekoentzako afaria, Belaustegi jatetxean

Bikotekiderik gabekoentzako afaria antolatu du Belaustegik bigarrenengoz. Maiatzaren 24an izango da, eta interesatuek 45 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu-korrante honetan, kontzeptuan izen-abizenak eta telefono zenbakia zehaztuta: ES41 3035 0007 2200 7006 5330. Izena emateko epea hilaren 14an bukatzen da. Autobusa 19:30ean irtengo da Eibartik, Egogainetik, eta 19:45ean Elgoibartik, Txankakuatik.

Komun publikoa jarriko du Udalak Urazadin

Elgoibarko Udalak komun publikoa jarriko du Urazandin, Herri Eskolak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat duen ikastetxearen ondoan. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dute komunaren lizitazioaren deialdia, eta, deialdiak zehazten du bere kasa garbitzen den horietakoa izango dela. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 54.000 eurokoa da (BEZa barne).

Gure Esku Dago egunak eta Udalak antolatutako pintxo-lehiaketak bat egingo dute asteburuan Mendaron

Musika, kirola, bazkaria, bertsoak, trikiti-poteoa eta erromeria izango dira biharko osagaiak

Asteburu biribila izateko osagai guztiak ditu oraingoak Mendaron. Mendaroko Udalak pintxo lehiaketa antolatu du, hirugarren urtez. Hala, bihar eta etzi tabernariak espreski lehiaketarako aurkeztutako pintxoak dastatzeko aukera izango da (12:00etatik 15:00etara, eta 19:00etatik 21:00etara). Pintxoak euro batean salduko dituzte tabernariak, eta Udalak hiru pintxo onenak sarituko ditugu. Herritarrek ere izango dute, baina, epaimahaikide izateko aukera. Taberna bakoitzean kutxa bat egongo da, eta herritarrek aukera izango dute euren pintxo gustukuenaren alde egiteko. Boto guzti horiek batu eta zenbatuko dituzte gero antolatzaileek, eta pintxorik estimatuena sarituko dute. Bozketa horretan parte hartzen duten guztien artean, 50na euroko bi bono zozketatuko dituzte. (epaimahai herrikoiak aukeratutako taberna irabazlean gatzatzeko).

Gure Esku Dago

Erabakitze eskubidearen alde egin eta ekainaren 8an Durango eta Iruñea batu asmo dituen giza-katerako motorrak berotze aldera, Gure Esku Dago eguna antolatu du biharko Mendaroko Gure Esku Dago batzordeak, herriko hainbat eragileren laguntzarekin. Batzordetik gogorazi dute ekainaren 8rako giza-katerako metroak saltzea dute-la lehenasuna, baina aldarrikapena jaiarekin uztartuko dute. Egun osoko egitaraua antolatu dute, 14:30ak aldera frontoian egingo dute herri-bazkariaren bueltan. Eguerdian, 12:00etan, kalejiran irtengo dira



Bizi Poza txarangakoak, eta ondoren, 13:30ak aldera herri-kirol saioa izango da plazan. 14:15ean Gure Esku Dago ekimenaren aldeko argazki handia atera asmo dute plazan, eta elkarrekin bazkalduko dute gero frontoian, aurrez txartela erosi duten guztiak. Bazkalostean, 17:00ak aldera, herriko bertsoariak kantatuko duten agur banaren ostean, Inozentzio clownaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Ume nahiz helduentzako saioa izango da. Umore tartearen ostean, trikiti-poteorako ordua izango da. Herriko trikitalari eta bertsoariak giro-tuko dute poteoa, eta gauean, 23:00etatik aurrera, dantzaldia izango da plazan, EROmeria taldearekin. Erromeria bukatutakoan, DJaren txanda izango da.

Absolbitu egin dute Mendaron emakume bat bortxatu izana egotzita epaitu duten gizona

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Lehen Atalak absolbitu egin du 2011n Mendaron emakume bat bortxatu izana leporatuta epaitu duten 73 urteko gizonetzkoa. Epaiaren arabera, akusatua eta emakumeak eduki zituzten sexu-harremanak adostuak izan ziren, eta horrenbestez, ez da deliturik izan. Gipuzkoako Auzitegiko Fiskaltzak eta akusazio partikularrak hamabi urteko espetxe-zigorra eta 20.000 euroko kalte-ordaina eskatzen zituzten gizonarentzat. Epaiak frogatutzat eman du sexu-harremanak izan zituztela, baina diru truke.

Pello Urizarrek hitzaldia eskainiko du datorren egunean, Kultur Etxeko sotoan

Europako Hauteskundearen kanpainaren barruan, hitzaldia antolatu du Elgoibarko EHBilduk hilaren 15erako. Pello Urizar EHBildiko ordezkaria etorriko da, Europako Hauteskunderi eta Troikari buruz berba egitera, besteak beste. Horrez gain, bihar Donostian egingo den ekitaldi politikora joateko autobusta antolatu dute Elgoibartik. Herritarren eskubideen alde eta Troikaren Europaren kontrako ekitaldia egingo dute 18:00etatik aurrera, eta 16:45ean irtengo da hara joateko autobusa King-Kongetik. Interesatuak Usua, Iturri edo Jai-Alai tabernetan eman dezakete izena.

Sigmako eskola zaharberitu dute auzotarrek eta Udalak elkarlanean

Erabilera anitzeroako lau gela egokitu dituzte auzoko ume zein gazteentzako

Sigma auzoko bizilagunek auzolan-ean zaharberitu dituzte Sigmako eskola izan zen eraikina eta inguru-nea, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin eta babes ekonomikoarekin. Alfredo Etxeberria alkateak, Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak eta Jose Antonio Ruiz *El Rubio* Sigmako bizilagunak azaldu dutenez, urtebeteko auzolanaren emaitza dira zaharberitze lanak. Udalak 20.000 euro inguru jarri du dirutan, behar zituzten materialak erosteko batez ere. Gainerakoan, auzotarrek eurek egin dituzte lan guztiak, komunak izan ezik. Auzoko 50 bat lagunek parte hartu dute obretan, eta horrez gain, etxetik ekarritako hainbat gauzeekin hornitu dute eraikina: altzariak, hozkailuak, bizikletak...

Momentuz, erabilera anitzeroako lau gela egokitu dituzte, eta adinaren arabera banatu dituzte. Hala, Lauko izeneko gela 5 urteko umeentzako izango da; Olasope (6-12 urte), Zizilion (13-18 urte) eta Pedrusko (18-20 urte). Bizikletak eta patineteak gordetzeko gela bat ere prestatu dute beheko solairuan eta baita komuna ere. Komun publikoa izango da. Era berean, Sigmako auzokoen elkarteak erabiltzeko gela bat ere egokitu dute. Kanpoaldean, bestalde,



aparailu berriak eta kautxu sintetikoak zozua jarri dituzte. Horrez gain, ping-pong mahaia eta meriendak egiteko gunea ere jarri dituzte arkupeetan.

Bolatokia

Elgoibarko auzo askotan daude bolatokiak: Aiaztia, Idotorbe, Sallobente, Azkue... Eta, Sigmak ere badauka berea. Gutxi jakingo dute, behar bada, aspaldi laga baitzioten erabiltzeari eta gaur egun landaretzak estaltzen du lehen bolatokia zen gunea. Frontoiaren atzeko aldean dago Arabar, bolo-jokoan aritzeko

aire libreko bolatokia. Estalpea jarri eta Hiru Txirloan jokatzeko bolatokia jarri nahi dute auzotarrek, eta Santiago egunerako (uztailak 25) erabiltzeko moduan egotea nahiko lukete. Izan ere, auzoko hainbat gune berreskuratzearekin batera, auzoko jaiak indartu nahi dituzte Sigmak. "Egun polita izaten da uztaillaren 25a Sigmak. Pilota txapelketaren finalak jokatzeko ditugu eta giro polita sortzen da, baina sasoi batean egiten ziren auzoko jaiak berreskuratze ahaleginean dihardugu", aurreratu du Jose Antio Ruizek.

Makina-erremintari lotutako elementuak erakuslehoetan jartzeko eskatu die Elgoibarko Udalak merkatariei

Makina-erremintaren mendeurrena dela-eta, gaiarekin lotura duten apaingarriak jartzeko eskatu die Udalak herriko merkatariei. Datorren astean espreski horretarako prestatutako biniloa banatuko die Udalak, baina horrez gain, argazki zaharrak, makinak, dokumentuak edo bestelako apaingarriak erabili ditzakete erakuslehoak apaintzeko.

'Emakumeak eta industria'

Horrez gain, *Emakumeak eta industria* erakusketa prestatzen dihardute Udaleko arduradunek, eta gai honekin lotura duen materiala eskatu nahi diete herritarrei: josteko makina zaharrak, argazkiak, testu-dokumentuak... Erakusketa San Bartolome jailetan inauguratuko dute, baina materiala ahalik eta azkarren jasotzea interesatzen zaio Udalari, dena garaiz prestatu ahal izateko. Norbaitek zerbait izango balu, bi modu dauzka arduradunekin harremanetan jartzeko: mendeurrena@gmail.com helbide elektronikoa edo 943 747 314 telefono zenbakia.

ILUNTASUNEAN ARGI

Espainiako Ezinduen Txapelketako slalom erraldoia irabazi du Gaizka Loiola elgoibartarrak aurtengo eski denboraldian. Itsuentzako modalitatean parte hartu zuen Gaizkak, Dani Gavaldà gidariaren laguntzarekin eta urrezko domina eskuratu zuen. Lau eski denboraldi daramatzate elkarrekin eskiatzen Gaizkak eta Danik, eta asteburuero egiten dituzte entrenamenduak Baqueira Beret-eko eski estazioan. Abiadura eta sentsazio biziak ditu gustuko Gaizka Loiolak. Eskiaz eta beste hainbat kontuz jardun dugu berarekin eta bere aita Isaac Loiolarekin.

Ainhoa Andonegi

Jaiotzez da itsua Gaizka Loiola. Isaac aitak azaldu duenez, amaren haurdunaldia arazorik gabe joan zen aurrera, eta erditzean ere ez zen arazorik egon, baina Gaizka jaio eta hasierako egunetan igarri zuten medikuek ikusmenean arazoren bat zeukala. “Kolpe gogorra izan zen”, adierazi du Isaac Loiolak. Hara eta hona bueltaka ibili ziren, Estatu Batuetara iritsi ziren arte. Hiru ebakuntza egin zikioten Gaizkari, eta neurologokikoki prestatuta dago ikusi ahal izateko, baina medikuntzak ez du asmatu oraindik begietako gabezia hori konpontzeko biderik. 12 urte dauzka Gaizkak, eta ez du ikusten, baina iluntasunean argi bizi da elgoibartar gaztea. Ez da atzean gelditzen den horietakoa, eta sentsazio biziak ditu gogoko. Sendagileek gomendatuta hasi zen eskiatzen 4 urte zituela. Kirola, oro har, oso ona da oreka eta psikomotritzitatea lantzeko, eta eskiak onura handiak ekarriko zizkiola esan zieten. Etxean beti izan dira mendizaleak, eta buru-belarri sartu ziren etxeko guztiak eskiaren munduan.



Horrelaxe hasi zen Gaizka. Ia oinez ikasi zuen une berean jantzi zituena eskiak, eta ordutik ez dio eskiatzeari laga. Baqueira Beret eski estazioa gomendatu zieten, han eskaintzen zutelako laguntza gehien, eta hara joaten dira neguko asteburuetan. Eguraldi txarra egiten duenean gurasoak etxean geratzen dira, baina Gaizkak eta bere arreba ez dute asteburu bat bera ere galtzen. Goizeko 9:00etatik 14:30ak aldera arte ibiltzen dira gora eta behera, jaitsiera mota desberdinak egiten. Gogor entrenatzen du, eta lan hori hasi da bere fruituak ematen.

Ez ikustea ez da oztopo izan Gaizka Loiolarentzat, eta argi erakusten dute azken urteetako lorpenek. Kirola afizioz praktikatzarekin nahikoa ez, eta 2010ean txapelketa ofizialetan parte hartzen hasi zen. Hainbat txapelketa irabazi ditu urte hauetan, eta azkena bukatu berri den denboraldian: Espainiako Ezinduen Txapelketako Slalom Erraldoia. Hiru eski gidari izan ditu urte hauetan zehar, eta azken lau denboraldiak Dani Gavaldà kataluniarrekin egin ditu. Gidaria-

Dani Gavaldà gidariarekin, Baqueira Beret estazioko maldan behera.



ren garrantzia nabarmendu dute aita-seeek, eta “tandem perfektua” osatzen dutela adierazi dute. Daniren begiek gidatzen dute Gaizka iluntasunean, eta sekulako harremana dute. “Gidaria eta laguna” da aldi berean Dani, eta erabateko konfiantza dauka berarengan. Bozgorailu bat eramaten du bizkarrean Danik, eta Gaizkak adi-adi entzuten ditu agindu guztiak. “Konfiantza osoa” dauka gidariarengan, eta hark emandako aginduak inolako zalantzarik gabe betetzen ditu, ia pentsatu gabe. Jon Santacana eskiatzaileak esaterako zerbait ikusten du, eta *bluetooth* bidez jasotzen ditu bere gidaren aginduak. Jonek ikusten du gida bera eta momentu askotan hitz egiten joaten dira, baina Gaizkaren kasua oso bestelakoa da: Itsuen eskian kategoria desberdinak daude, eta Gaizkak ezer ikusten ez dutenen kategorian hartzen du parte. Elur gorrak ateratzen duen soinua edo haizea bera oztopo izaten dira gidariaren aginduak entzuteko, eta distantzia oso ondo neurtu behar izaten du. Baina distantzia gordetzeaz gain, Gaizka oso kontzentratuta joaten da bere zereginean. Kontzentratzeko “ahalmen izugarria” dauka, bai eskian eta baita eguneroko bizitzan ere, eta kontzentrazio gaitasun horrek errazago egiten dio bizimodua, hainbat alorretan. “Behar direnak eta ez direnak entzuten ditu askotan Gaizkak”, esan du Isaac Loiolak umorez. Baina serio jarrita, ikasketetan oso ondo moldatzen da Gaizka. Kontzentrazio ahalmen horrek irakasleen argibideak adi-adi jarraitzeko aukera eskaintzen dio, eta horrez gain, memoria oso ona dauka. Horri esker, oso emaitza onak lortzen ditu eskolan. Musika Eskolara ere joaten da, perkusioa eta gitarra jotzen ikastera. “Musika pila bat gustatzen zait”, adierazi du. Aitak esan duen bezala, edozein momentu aprobetxatzen du mahaia edo kristala eskuekin jo eta bere konposizio txikiak sortzeko. “Uneoro lanean” egoten da.

Hezkuntza sistema itsuentzako ondo prestatuta dagoela uste du Isaac-ek, eta alor horretan ONCEk eta Eusko Jaurlaritzak egin duten lana nabarmendu du.

Elgoibar Ikastolan ikasten du Gaizkak. Laguntzaile bat dauka eta informatikari esker bereganatzen ditu eskolako edukiak. Gaur egun ikasketak gehienak ordenagailu bidez egiten dituzte ikastetxeetan, eta Gaizkak itsuentzako sistema berezi bat erabiltzen du. Ordenagailuak hitz egiten dio, eta beretzako espreski prestatutako teklatura dauka. Izugarri gustatzen zaio Gaizkari ordenagailuen mundua, eta sakelako telefonoarekin ere primeran moldatzen da. I-Phone-k itsuentzako aplikazio berezi bat dauka, eta hori erabiltzen du. “Aita baino hobeto moldatzen da telefonoarekin”, esan du Isaac-ek. Semea “teknologikoa” irten zaio. Etorbizunean zer izan nahi duen galdetzean ere, segurtasunez erantzun du Gaizkak: informatikaria.

Baina ez da hori Gaizkaren ilusio bakarra. Mutil ausarta da, eta abiadura eta sentsazio biziak ditu gogoko. Baqueirako maldetan behera ziztu bizian jaisten da, eta pistetaik nahiz pistaz kanpo ere primeran moldatzen da. Horrez gain, iazko udan surfa probatu zuen Debako hondartzan, eta lehenengo egunean jarri zen zutik taula gainean. “Oreka oso ondo mantentzen du Gaizkak, eta flexibilitate handia dauka”, dio aitak. “Asko gustatu zitzaidan surfa, eta aurten ere egingo dut”.

Baina Gaizkak gehiago nahi du; harago joan nahi du. Hegan egin nahi du, parapentean. Aitak serio esan dio horretan ez diola berak lagunduko, baina babes osoa eskaini dio semeari. Azken batean semea pozik ikustea da gurasoen nahia, eta zeregin horretan ez diote oztoporik jarriko. Bizitza honetan oztopoak norberak jartzen dizkio bere buruari, eta esaera zaharrak dioen bezala, *gustuko lekuan aldarrik* ez.



Espainiako Txapelketako podiuma, Andorran.

KIROL CURRICULUMA

2013-2014

- Xanadun (Madril) egin zuten Itsuentzako Eski Kontzentrazio Kopa irabazi du.
- Espainiako Slalom Erraldoia irabazi du Pas de La Casan (Andorra), itsuen kategorian.

2012-2013

- Port Ainé estazioan egin zuten Kataluniako Slalom erraldoian hirugarren postuan eskuratu zuen.
- Denboraldi honetan ez zuen beste txapelketarik jokatu, belauneko lesio baten ondorioz.

2011-2012

- Xanadun (Madril) egin zuten Itsuentzako Eski Kontzentrazio Kopa irabazi zuen.
- Euskadiko txapelketa irabazi zuen eta Cerlerren jokatu zuten Kopa Txapelketan bigarren.
- Bigarren egin zuen Espainiako Slalom Erraldoian, Pas de La Casan (Andorra).
- Kopa txapelketa irabazi zuen.

egiten du horren moderno poeta klasiko hau?

Langilieriarenganako zuen konpromisoak, beharbada; gizabanakoaren duintasuna aldarrikatzeko egin zuen lanak. Gaur ere badugu horren beharra, gizakia azpian hartua dutelako beste faktore askok.

Gizakiaren duintasunaren aldeko aldarrikapena aipatu duzu. Arestiren inguruan hiru balore nabarmendu izan dira: euskalduntasuna, unibertsaltasuna eta justiziarenganako maitasuna. Identifikagarriak iruditzen zaizkizu?

Egia esan, euskaraz ari diren hainbat idazleren ezaugarriak izan daitezke bereziki lehenengo bi horiek, eta horregatik beharbada, ez zaizkit horren bereizgarriak edo nabarmengarriak iruditzen 'euskalduntasuna' eta 'unibertsaltasuna' ezaugarriak. Izan ere, euskaraz eta euskaratik mundura zabaltzeko ahalegin horretan ari diren guztiei lotzen zaizkien baloreak izan daitezke horiek, eta asko dira gaur. Baina hirugarren ezaugarri hori bai iruditzen zait bereagoa. Euskal letra, euskal literatura, euskal kultura modernizatzeko egin zuen lan mardula aitortu beharko genioke, edozelan ere. Beste kulturen pare izateko berritu beharra zegoela ikusi zuen, eta gogor borrokatu zuen horren alde.

Arestiren kantu asko kantatu izan ditugu, batzuetan bereak zirela jakin ere egin gabe. Zuk poema horiek musikatu dituzu orain. Erantzukizun handia izan da zuretzat?

Hasieran buelta larregi ere eman nizkion kontu horri. Orain arteko erreferentziak hain ziren nabarmenak kosta egin zitzaidala beste bide bat hartzea, ordura artekotik aldentzea. Oskorrik egindako lana hor zegoen, eta horri zerbait gehitzea ere zaila egiten zitzaidan. Poemak aukeratu nituen lehenengo, Arestiren alde politikoagoa baztertu eta haren aurpegi lirikoena agertzen zituzten poemak, eta lanean hasi eta lortu nuenean hori dena nire mundura ekartzea, instuiziaz hasi nintzen lanean, besteek egindakoari horrenbeste begiratu barik. Neuretik jardun dut beraz. Errespetu handia ematen du Arestiren inguruan zerbait egiteak, Gabriel Arestiri buruz aurreiritzi asko ditugulako, eta nork bere Aresti duelako buruan. Ez da figura estandarizatu bat, eta badakizu edozer eginda ere, iritzi ezberdin asko entzungo dituzula, eta beharbada, kontrajarriak ere bai.

Zer azaleratu nahi izan duzu musikaren bidez?

Nire lan egiteko modua oso hurbil dago pop eta melodiatik eta, Arestiren mezurik gehienak oso latzak izanda, kontrajarriak dira armonia eta melodia leunekin, baina iruditu zitzaidan bi mundu horiek uztartu behar nituela nolabait; mezu garratzak modu leunean esan behar nituela. Proba egin nuen, eta gustatu zitzaidan emaitza, iruditu zitzaidalako mezu garratzasun hori multiplikatu egiten zela ikusten ez den estetika batekin nahastean. Erakargarria egin zitzaidan, eta hortik jo nuen. Azken batean, pare bat momentu kenduta, kantua oso melodikoa da, eta testuak, orokorrean, garratzak.

Obrak berak badu trama bat. Azalduiguzu, motzean bada ere.

Idazle gazte bat eta emakume edadetu bat dira protagonistak, eta beraz, idazten hasi nahi duen gazte baten kezka eta emakume edadetu baten aholkuak nahasten dira.

Aitortuko dizut bitxia egin zaidala Arestiren inguruko antzeppen bateko bi protagonistak emakumezkoak izatea.

Kontzienteki egin dugu. Esan dizut Arestik gizon berba erabiltzen zuela gizakia esateko, eta horren bueltan sor zitezkeen kezketatik abiatuta, iruditu zitzaigun beste genero perspektiba batetik planteatzea obra bera. Oier Guillanek hobeto azalduko zizun hori, baina bai, nahita egindako zerbait izan da. Bilatutakoa. Arestiz ari garela, eta nik esango nuke idazle gazteaz ari garela, gizonetzko bat datorkigu guztioi burura, eta horri buelta eman nahi genion.

Talde handiak lan egin duzue hemen. Elkarrekin lanean jardundakoak izan edo ez, ziurrenik gehienok ezagutuko zenuten elkar. Nolako izan da elkarlan hori?

Izugarri aberasgarria. Ezagutzen genuen elkar aurretik, eta ni neu Alain Urrutiarekin eta Iban Urizarrekin aurrez lan egindakoa nintzen, baina gainerakoekin ez. Hala ere, oso esperientzia polita izan da. Hainbat batzar egin ditugu, buruan geneukana mahai gainean jartzeko eta denon artean horri forma emateko, eta prozesu hori oso interesgarria izan da. Sormen lana normalean prozesu indibidualagoa izaten da, nork bere bakardadean egindakoa, baina guk hainbat *brainstorming* egin genituen, harik eta urrian estreinatu genuen arte. Ekainean, aitortuko dizut bagenuela geure buruen gainean halako nebulosa handi bat. Gauza asko definitu gabe zeuden sentsazioa banuen, baina gero, etxean musika egiten hasten nintzenean, jabetzen nintzen nola ari nintzen batzarretan esandakoak baliatzen, eta orduan hasi nintzen egindako lanaren baliotz jabetzen. Iritzi-truke hori handia da.

Bi musikari elgoibartarrekin jardun duzu. Zer duzu esateko haien buruz?

Iban [Urizar] ezagutzen nuen aurrez, nire bakarkako azken lanean ere lagundu zidalako,

eta esan beharrik ez dago asko estimatzen dudana musikaria dela. Instrumentu ezberdinak jotzen ditu, eta musika ulertzeko duen modua asko gustatzen zait. Neure zilborrera begira egotetik mugiarazi dit askotan, eta izugarri eskertzen diot. Naia [Membrillera], berriz, Ibani esker ezagutu dut. Perkusio jole bat behar genuen, eta Ibanek eman zidan bere izena. Eta egia esan, oso eskertuta nago, oso ondo ulertu duela egin nahi genuena.

Ikuskizunean zuzenean arituko zarete, ezta?

Bai, bai.

Behar besteko aitortza jaso du gaur arte Gabriel Aresti poetak? Nola baloratzen duzu bere obra ezagutarazteko sortu den elkarte egiten ari den lana? [Gabriel Aresti kultura elkarte idazlearen ondorengoek — Gabrielen alargun Meli Estebanek eta eta hiru alabek — eta Zenbat Gara elkarteak osatzen dute].

Aitortza? Ez. Nik uste dut elkarte hau sortu bada horrexegatik dela: ez zaiolako behar besteko aitortza egin. Nik garbi daukat egin zaion aitortza baino handiagoa merezi izan zuela Arestik eta horretan ari da Gabriel Aresti elkarte. Lan hau ere haien eskariz sortu da, eta aurrera begira ere badituzte beste lan batzuk buruan. Izan dira Arestiren obra beti goraiatu duten batzuek, Natxo de Felipe bera esaterako, baina beste jende askok bizkarra eman diote. Hala ere, garbi daukat denborak jarriko duela merezi duen lekuan.

JOLASTOKIA, TOPIKOEN AGERTOKI

Erabat normala iruditzen zaigun zerbait zalantzan jartzen hastea bera zaila izaten da, azken batean norbere burua delako sarri ezbaian jartzen dena, baina ahaleginak mezezi duelakoan daude ElgoiBerdin tailerraren sustatzaileak. Espazioaren erabilera aztertuko dute, genero ikuspegitik. Espazio publikoan berdin jolasten al dute gure seme-alabek? Eta hala balitz, ba al du eraginik horrek haien garapenean? Hiru eguneko gogoeta-tailerra antolatu du Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, Herri Eskolaren eta Elgoibarko Udalaren babesarekin eta Urbesforall enpresaren aholkularitzarekin. Maiatzaren 15ean hasiko da tailerra, eta zabaldu dute izena emateko epea.

Ainara Argoitia

Galderak egitea da ikasteko bidea, eta gizartetik jasotzen ditugun harreman ereduak zalantzan jarri eta behar denean kritikoz izatea da berdintasuna lortzeko bidean pausoak emateko modua. Hori bezain sinplea da paperean, baina hori bezain zaila egunerokoan, detaile asko daudelako zaintzeko, txikiak izanda ere, eragin handia duten detaile asko. Gaiak oihartzun handia hartu du hala ere azkenaldian, eta Hezkuntza esparruaren bueltako eragile asko hasiak dira lanean. Eskoletako espazioak eta haien erabilera aztertu duten azterlan dezente argitaratu dituzte han eta hemen, eta ondorioa bat izan da guztietan: genero adierazlea erabakigarria dela. Hala jaso du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berak ere, hezkidetzeta eta



Ainhoa Aduriz, Miren Vives, Esther Alonso eta Patxi Galarraga, maiatzaren 15ean martxan jarriko duten ElgoiBerdin tailerraren sustatzaileak.

genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-planean: “Garbi gelditu da jolastokian eta jolasteko eremuetan espazioaren banaketa sexista dela oraindik ere, jolasen hierarkiagatik, nesken eta mutilen jokabideengatik eta jolastokia bera antolatu gabe egoteagatik”. Gai hau aztertzeko, ElgoiBerdin tailerraren sustatzaileak batu ditugu mahaira: Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteko Esther Alonso eta Ainhoa Aduriz gurasoak eta Urbesforall enpresako Miren Vives eta Patxi

Galarraga, gurasoak biak ere. Solasaldia hasita dugula, Kalamua guraso elkarteko Itziar Aranberri eta haren bi seme-alabak batu zaizkigu mahaira.

Eskolako patioari begira jarri gaitu bat-batean Miren Vivesek. “Ia eskola denetan futbol-kantxak hartzen du espazio gehien, eta jolas horietan ari direnek euren jokorauak inposatzen dizkiete gainerakoei. Neskek espazio gutxiago hartzen dute. Mutilak erdialdean kokatzen dira, eta neskek

bazterretan, eskilaratan, pasiloan...". Jolasen garrantzia eta haien botere simbolikoa ere, ezberdina dela dio. Gure gizartean garrantzia handia daukan aktibitatea betetzen dute mutilak, futbola, eta neskak, "besterik gabe", hor daude. "Espazio pribatu-itxia da neskena, eta espazio publiko-garrantzitsua mutilena", zehaztu du Patxi Galarragak. Okerrena ez da hori, baina, elkarrizketatuen arabera. Okerrena da neskek eurek ere mutilena gehiago baloratzen ikasten dutela, futbolearen jokatzeko garrantzitsuagoa dela transmititzen zaielako.

Ainhoa Aduriz Kalamua guraso elkarteko ordezkariak argi dauka espazioan islatzen dela gizonak eta emakumeak nola gauden sozializatuta, eta ikasteetxetako jolastokietan gertatzen dena horren islada baino ez dela. "Antzerki handiaren errepresentazio bat", Galarragaren hitzetan.

Topikoak eszenaratzen dira haurrak jolasean ari direla, eta ereduak horren markatuak egoteak "kalte handia" dakar. Batetik, sexu bakoitzak gaitasun batzuk bakarrik lantzen dituelako, eta bestetik, eredu horietatik ateratzen diren neska-mutilek sufritu egiten dutelako, "arraro" ikusten dituztelako lagunek. "Futbola gustuko ez duen 12 urteko mutila galduta sentitzen da. Edo ikasten du futbolearen edo bilatzen du bere lekua neska taldean", dio Galarragak. Labur esanda, hurrek ez dutela ezberdin izateko aukerarik. Luze hitz egin dute baloiaren inguruan, eta baloiak sortzen dituen "arazoen" inguruan. "Baloiak badu gauza bat. Parkera bi mutil agertzen badira baloiarekin gainerako guztiok albora egiten dugu haiei lekua egiteko. Baita guk geuk ere. Zergatik?", galdetu du Vivesek. "Gaur arte ikasi duzun guztia ahaztu eta no-

rabidea zuzentzeko bigarren aukera bat eskaintzen du guraso izateak, eta aukera hori baliatu behar dugu", gehitu du aldamentetik Galarragak.

Horrek guztiak konponbide zaila duela aitortu dute, eta generoaren bueltan lanean dabilen beste ikastetxe batzuek hartutako erabakiak jarri dituzte mahai gainean. Badira asteko zenbait egunetan baloiarekin jolastea debekatu dutenak [Herri Eskolan, barixakue-tan ezin dute baloiarekin jolastu], eta debekuen kontra dauden arren, onartu dute baloiaren erabilera mugatzea lagungarri izan daitekeela, beti ere haurrei jolas-alternatibak ematen bazaizkie. Argi dute ezin ditugula neskak baloiarekin jolastera behartu eta ezta mutilak gurasotara jolastera ere, era horretako saioek ez dutelako emaitza onik eman. "Lagundu egin behar diegu, eredu berriak eman, alternatibak eskaini", dio Adurizek.

Eskolaren papera

Oharkabea, "bideratu" egiten ditugu neskak eta mutilak bizitzako lehen urteetan, eta eskolak zailtasun handiak dauzka bere oinarriko egitekoa betetzeko: bakoitzaren gaitasunak garatzeko eta neska-mutil "kritiko eta askeak egiteko". "Hezkuntza Sistema ez dago prest. Eskola ez da gauza isolatu bat. Guk geuk zailtasunak baldin baditugu, pentsa ezazu eskolak zer daukan", esan du horren harira Adurizek. Gorputz heziketa irakasgaia jarri dute eredutzat. Gaurko ereduaren erabat "maskulinoa" dela diote, besteak beste taldean proposatzen diren jolasak ia beti espazio handian mugitzekoak direlako, baloiarekin edo korrika, edo dena dela. Hau da, mutilak "entrenatuago" dauden ariketak dira,

eta horrenbestez, normala da erosoago aritzea; are, "hobeak" izatea.

"Nik hiru alaba dauzkat eta nire alabek euren adin bereko mutilen aldean ariketa fisikoko gutxi egiten dute; ez daude espazio zabaletan korrika egitera ohituak, hein batean espazio hori mutilena delako gaur", esan du Alonsok. Bat datoz gainerako solaskideak ere. Areago jo du solaskide taldeko gizonetako bakarrak: "Dantza, gaur gaurkoz, ez da Gorputz Heziketan irakasgaien lantzen. Horretarako beste abilezia batzuk behar dira, eta beharbada, neska asko prestatuago daude, baina hori ez da baloratzen. Baloratzen dena eredu 'maskulinoagoa' da", esan du Galarragak. Sarri eredu neutro eta unibertsaltzat hartu dena, gizon ereduak alegia.

Bideratu hitza behin eta berriz irten da hizketaldian, eta haurrak eredu jakin batera bideratuta ditugun erakusle nagusia, edo behinik behin, ikusgarriena, jostailuen katalogoak eurek direla nabarmendu dute. Mahai gainera atera ditu Vivesek, Legok 70eko hamarkadan egindako iragarki bat eta gaurko beste bat. 70ekoan ez dago genero markaturik argazkiko neskatoaren irudian, eta gaurko legoaren iragarkia, aldiz, oso bideratuta dago. Jostailua ezberdina da: "Neskentzako", etxe arrosa bat da, eta sukaldariak, ile-apaintzaileak... agertzen dira. "Mutilentzakoan", berriz, suhiltzaileak, poliziak... "Gose direnean nora joan behar dute suhiltzaileak?", galdetu du bat-batean Vivesek. "Nesken etxera", erantzun du azkar Alonsok.

Horiek guztiak eta gehiago aztertuko dituzte Elgoiberdin tailerrean. Behaketa, baina, kalean egingo dute; "jolaserako espazio naturalean", Galarragak gogoratu duen bezala.

TAILERRAREN EZAUGARRIAK

Hiru galdera nagusi planteatzen ditu Elgoiberdin tailerrak: ba al zenekien haurren jolasaren bidez moldatzen dutela beren izaera? Espazio publikoan berdin jolasten al dute gure seme-alabek? Haurtzaroen desberdin jolasteak ba al du eraginik bere garapenean?

Hiru eguneko tailerra izango da. Maiatzaren 15ean egingo da lehenengo saioa. Formazio saioa izango da

hori, eta ondoren, maiatzaren 22an, kalera irtengo dira, behaketa egitera. Maiatzaren 29an egingo dute hirugarren saioa, jasotako informazioa aztertu eta ondorioak ateratzeko. Saio guztiak arratsaldean izango dira, 18:00etatik 20:00etara.

Behaketan, eta azkeneko saioan, besteak beste honako baliabide hauek erabiliko dituzte: papera, post-itak,

gometxak, smartphone-ak, sare sozialak, instagram, souncloud, storify.

Izena emateko epea zabalik dago, eta azken unera arte egongo da apuntatzeko aukera. Horretarako, bi telefono zenbaki jarri dituzte herritarren eskura: 626 386 206 (Esther) eta 653 716 113 (Ainhoa).

Informazio gehiagorako: www.elgoiberdin.wordpress.com.

Plan estrategikoa eta zuzendaritza talde berria onartu ditu Elgoibarko Izarrako bazkideen batzarrak



Zuzendaritzaki ohiak eta berriak: goian, Junkal Txurruka, Ane Odria, Ainhoa Andonegi, Imanol Larrañaga, Julen Irizar. Behean, Iñaki Konde, Urrategi Altzibar, Sebas Larrañaga, Naiara Martin, Lore Laspiur eta Amaia Lasagabaster. Aitor Lauzirika eta Asier Arzamendi falta dira.

Datozen hiru urteetarako plan estrategikoa, 2013ko memoria ekonomikoa eta zuzendaritza talde berria onartu ditu Elgoibarko Izarrako bazkideen batzarrak. Eguaztenean egin zuten Elgoibarko Izarrako bazkideen batzarra Kultur Etxeko hitzaldi gela, urte hasierako batzarrean zintzilik geratu ziren gaiak erabakitzeko. Datozen hiru urteetako plan estrategikoaren barruan, elkartearen antolaketa eredua geratu zen onartzeko urtarilean, eta eguaztenean jaso zuen atal honek bazkideen oniritzia. 2013ko diru kontuetan, 10.000 euroko galera aurkeztu zuen elkartearen kudeatzaileak. Elkarteak ekonomikoki “urte zailak” bizi dituela azaldu zuen, baina aurrera begira autofinantzaketak handitzeko ahalgina egingo dutela nabarmendu zuen. Bazkideek aldeko botoa eman zioten memoria ekonomikoa. Azkenik, bi urtez lanean jardun duen zuzendaritzari eskerrak eman zizkieten, eta zuzendaritza talde berria aurkeztu zuten. Bazkide profesionalak eta bazkide militanteek osatuko dute zuzendaritza batzordea. Presidente karguan Iñaki Kondek jarraituko du, egin ahalak egin arren, ez dutelako hura ordezkatzeko hautagairik lortu, oraingoz.

Jose Mari Etxaniz Alkorta da Taupada antzerki taldearen errifaren sariduna

Kultura Sailak antolatutako ikuskitzaren eszenikoetarako bonoa zozketatu zuen Taupada antzerki taldeak apirilko azken ferian, eta Jose Mari Etxaniz Alkorta, 2413 zenbakidun errifaren jabea, suertatu zen saridun. Argazkian, Jose Mari Etxaniz bera ageri da, Amaia Txurruka Kultura zinegotziarekin, Blanca Salegi Kultur teknikariarekin eta Taupada taldeko bi ordezkariarekin batera. Taupada antzerki taldeak eskerrak eman dizkie txosnara gerturatu zirenei eta errifak erosi zituztenei.



Atxutxiamaikaren Kiribil egitasmoak gaur izango du aurtengo estreinako saioa

Gaur itzuliko da Kiribil barraski-
loa herrira. 17:30ean agertuko da Kiribil plazara. Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzat eta haien gurasoentzat sortutako egitasmoa da Kiribil.

Danborradarako kartela sortzeko lehiaketa

Elgoibarko Danborrada Atabal Elkarteak lehiaketa antolatu du Trinitateetako danborradarako kartela aukeratzeko. 18 urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta lanak A2an edo tamaina proportzionalean aurkeztu beharko dira. Edozein teknika erabilia egin ahal izango dira, baina kartelean, testu hau agertu beharko da: *Elgoibarko danborrada 2014. Ekainaren 14an, gaueko 23:30ean*. Kultur Etxean aurkeztu beharko dira lanak, hilaren 20rako. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Informazio gehiagorako: 943 254 623.

Arnori buruzko ikuskizuna domekan, Mendaron

Arno mendiak gordeta izan dituen sekretuak azalerautuko dituzte domekan Mendaroko haur eta gaztetxoek. Antzerkia, dantza eta beste zenbait arte adierazpide baten dituen ikuskizuna prestatu dute, eta San Agustin kulturgunean eskainiko dute. Bi saio izango dira, baina ordutegia aurreratu egin dute. Lehenengo saioa 11:00etan hasiko da, eta bigarrena, 12:30ean. Ikuskizunean 4 eta 12 urte bitarteko 50 bat umek parte hartuko dute, gehienak Ludotekako eta Gaztelekukoak. Bi koloretako sarrerak atera dituzte: grisak (11:00etako saiorako) eta laranja (bigarren saiorako) eta Morroskillon eskura daitezke.

Erregional mailara jaitsi da Haundi, hamar denboraldi hirugarren mailan egin ondoren

Partida bat falta da txapelketa amaitzeko, baina ez dauka mailari eusteko aukerarik

Liga txapelketa amaitzeko jardunaldi bat falta bada ere, Haundik ez dauka hirugarren mailari eusteko aukerarik. Partida erabakiorra jokatu zuen joan zen zapatuan Mintxetan Bermeoren kontra, eta 0-1 galdu zuten elgoibartarrek. Saikapeneko 18. postuan dago Haundi 34 punturekin, eta postu bat gorago dago Bermeo, 39rekin. Azken jardunaldian Zamudioren aurka jokatuko dute elgoibartarrek, baina garaipenak ematen dituen hiru puntuak eskuratuta ere, ez daukate saikapenean gora egiteko aukerarik. Klubeko arduradunek taldea animatzera joateko eskatu zieten zaleei joan zen zapatuan, eta eskerrak eman dizkiete bai Bermeoren kontrako partidari eta baita denboraldi osoan zehar taldea animatzeko egin duten ahaleginagatik.

Hamar denboraldi hirugarren mailan

C.D.Elgoibarko talde nagusiak hamar denboraldi egin ditu



hirugarren mailan. 2003-2004 denboraldian igo ziren hirugarren mailara, eta ordutik ez dute maila galdu. Bi denboralditan (2008-2009 eta 2009-2010) gainera, 2B mailarako igoera fasea jokatuzeko saikatu zen Haundi, Jagoba Arrasate entrenatzaile zutela, nahiz eta igoera gauzatzerik lortu ez.

Morkaikoren Eguna ospatuko dute bihar



Morkaiko mendizale elkarteak Morkaikoren Eguna antolatzen du biharko. Azken urteetan bezala, Elgoibarko mendi itzulia, itzulitxoa eta finalista eguna egingo dituzte.

Elgoibarko mendi itzulia nagusientzako itzulia da. 38 kilometro ditu ibilbideak, eta partaideek 2.000 metro inguruko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Haurrentzako, berriz, itzulitxoa prestatu dute. Morkaiko mendira (520m) igo, San Migelen indarrak berreskuratu eta Elgoibarrera jaitsiko dira berriro ume eta gurasoak. Eguerdian partean, finalista eguneko dominak banatuko dizkiete umeei, urtean zehar egindako mendi kopuruaren arabera saikatu. 105 bat ume jasoko dituzte aurten dominak. Orain arte Pako Iriondok banatzen zituen dominak, baina aurten Sabin Txurrukak eta Javier Etxeberriak banatuko dituzte.

Morkaiko Egunean parte hartzeko izena eman behar da. Momentuz ehun bat lagun apuntatu dira mendi itzulia egiteko,

eta itzulitxorako 70 ume eta 80 guraso daude izena emanda. Dena den, aurrez izena eman ez dutenek bihar bertan ere izango dute aukera: 18 urtetik beherakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte (bazkideek, 7 euro), eta gainerakoek 17 euro (bazkideek, 13 euro).

Egitaraua:

- **6:00** Elgoibarko Itzuliko Irteera, Kalegoen plazatik.
- **9:00** Elgoibarko Itzulitxoaren Irteera, Kalegoen plazatik. (10:00etan San Pedrotik hasten direnak).
- **12:00** Elgoibarko Itzulitxokoak mokadutxo egingo dute Aiastiako anoa postuan.
- **13:00** Elgoibarko Itzulitxoko bazkariak zerbitzen hasiko dira (entsalada, haragi gisatua, postrea...). Elizako arkupeetan.
- **13:30** Finalista Eguneko dominak banatuko dituzte, Kalegoen plazan.
- **14:00** Umeen bazkaria (pasta tomatearekin eta postrea) Elizako arkupeetan.
- **15:00** Atxutxiamaikakoekin jolasak umeentzat, Kalegoen plazan.
- **17:00** Morkaiko Argazkia aterako dute Kalegoen plazan partaide guztiak.

Alberto Revuelta Euskadiko txapeldun, 10.000 metroan

Atletismoko bigarren proba luzeena da



Donostiako 15 km-ko lasterketako argazkia.

Euskadiko atletismo konbinatuko txapelketa jokatu dute joan den asteburuan Durangon, eta, zapatuan (maiatzak 3) iraupen lasterketen Euskadiko txapelketa egin zuten. Hogeita hamar atletek parte hartu zuten 10.000 metroko lasterketan eta bi nafar nagusitu ziren: Antonio Javier Casadok (30:10.44) irabazi zuen proba eta Rodrigo Sanchez (30:37.29) ailegatu zen helmugara bigarren postuan. Hirugarren postuan sailkatu zen Alberto Revuelta, Donostian bizi den elgoibartarra, 30:51.87 denborarekin. Horrenbestez, Revuelta da 10.000 metroko Euskadiko txapeldun berria. Maratoiaren ostean, atletismoan egiten den bigarren probarik luzeena da 10.000 metroko lasterketa.

Rafa Alkorta futbolari ezagunak Elgoibarren grabatu du 'Planeta Bike' programarako edukia



Txirindularitzari buruzko *Planeta Bike* saioa aurkezten du Rafa Alkorta futbolari ezagunak Canal+ katean, eta aste honetan Elgoibarren izan da programarako irudiak grabatzen. Lau egunetan zehar Debabarreneko BTT zentroak eskaintzen dituen ibilbideak ezagutu dituzte, eta horietako bat ere egin dute, Mintxetan hasi eta Arraten bukatzen dena, hain zuzen ere.

Telebista saioa maila guztietako bizikleta zaleei zuzenduta dago, eta bizikletan egiteko ibilbideak erakustea du helburu. Oro har, bizikletari loturiko esparru guztiak lantzen dituzte.

Arantzazu-Buitreitz kilometro bertikala irabazi du Larizek

Aloñako Igoerak 10 urte bete dituela-eta, hiru egunetarako egitaraua prestatu zuten astebururako, tartean Buitreitzeko lehenengo lasterketa bertikala. Gauzez jokatu zen proba, eta iluntasunari eta malda gogorrei aurre eginez, Iñigo Lariz izan zen Buitreitz gainera iristen azkarrena, Agusti Roc eta Ionut Alin Zincaren aurretik. Korrikalariek 2,7 kilometrotan 720 metroko desnibela gainditu zuten, Arantzazutik Buitreitzera arte. Larizek 27:57ko denboran amaitu zuen proba.



Sanloko zortzi jokalarik Gipuzkoako Selekzioan

Emakumezko kadete eta jubenilen Villa de Ermua Lurralde Selekzioen Torneoa jokatu zuten maiatzaren 1ean Ermuan, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Errioxako selekzioek. Gipuzkoako selekzioan Sanloko zortzi jokalarik hartu zuten parte. Kadeteetan: June Loidi, Nagore Rodriguez eta Nerea Bastida. Jubeniletan: Ainhoa Mugertza, Alaitz Egaña, Maddi Mendibil, Nerea Lazkano eta Nora Kortaberria. Kadeteetan Gipuzkoako selekzioak irabazi zuen txapelketa, eta jubeniletan bigarren egin zuten.

60 urtetik gorakoentzat kirol saioak

60 urtetik gorakoentzako kirol saioak jarri ditu martxan Elgoibarko kirol patronatuak maiatzetako. Martitzenetan egiten dituzte saioak, Mintxetan. Saioak doan dira, eta parte hartzeko ez dago izena eman beharrik. 10:00etan hasten dira jarduerak, eta nahikoa da ordu horretarako Mintxetan agertzea. 60 urtetik gora kirola nola egin behar den eta Mintxetako aparatuak nola erabili behar diren ikasiko dute, besteak beste.

King-Kong areto futbol taldeak irabazi du Euskadiko Kopa jubeniletan

Levanteren kontra jokatuko du Espainiako txapelketan



Elgoibarko King-Kong areto futbol taldeak ordezkatu zuen Gipuzkoa joan zen astean Olaizagan jokatu zuten Kopa txapelketan, eta bera izan zen txapelduna. Lehen partidari Bizkaiko (Berrio Santutxu) eta Arabako (Eskoriatza) txapeldunak lehiatu ziren, eta arabarrentzat izan zen garaipena (1-3). Bigarren partidari Berrio Santutxuren aurka jokatu zuen Cafeteria King Kong-ek. Etxekoek ez zuten ondo hasi norgehiagoka eta konturatu orduko bi gol sartu zizkieten bizkaitarrek. Oso aldapa gora jarri zitzairen partida etxekoek, baina bi minutuan berdindu zuten partida, eta beste bi gol ere sartu zituzten. Hortaz, Txapelketako azken partidari erabaki zen txapelduna. Eskoriatzak eta Cafeteria King King taldeek jokatu zuten elkarren aurka. Elgoibartarrek sartutako eta jasotako golen aldeari esker, txapeldun izateko aukera zuten berdinketa lortuz gero. Alabaina, partida irabaztea lortu zuten Abrahamek sartu zuen gol batekin.

Euskadiko txapelketa irabazi ondoren, Espainiakoa jokatuko dute, Levanteren kontra. Kanporaketa gainditzen duen taldeak El Pozo Murcia taldearen aurka jokatuko du final-laurdenetako kanporaketa. Espainiako Txapelketako Lauko Finala, berriz, ekainaren 14an eta 15ean jokatuko da.

Lagunak pilota eskolak Caritasi eman dio errifaren sariaren balioa dirutan

Domekan jokatu zuten binakako finalerako bi sarrera eta bi lagunentzako afaria zozketatu zituen Lagunak pilota eskolak, baina zenbaki sarituaren boletoa ez zuten saldu. Irabazlerik ez zegoenez, sariaren balioa dirutan Caritasi elkarteari ematea erabaki zuten. 340 euro eman dizkiote, behar dutenen artean banatzeko. Caritasi elkarteko kideek eskerrak eman dizkiete pilota eskolako arduradunei.



EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 0 – Bermeo 1 (3. maila)
Mutriku 2 – Elgoibar 2 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Aloña Mendi 3 (Jub.)
Bergara 1 – Elgoibar 2 (Kad. A.)
Zestoa 0 – Elgoibar 2 (Kad. B.)
Elgoibar 5 – Allerru 2 (Inf.)
Elgoibar 4 – Aizkorri 1 (Inf. Txiki)
Amaikak Bat 2 – Elgoibar 3 (Aleb.)

ESKUBALOAIA

Lauko Elg. 27 – Aloña 22 (Sen. nes.)
Alkorta Elg. 34 – Tolosa 24 (Sen. mut.)
Gabaz Elg. 34 – Bergara 23 (Sen. mut.)
Aloña 19 – Astigarraga Elg. 33 (Jub. nes.)
Ereintza 20 – Beristain Elg. 29 (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. 27 – Aiala 16 (Kad. nes.)
Ereintza 10 – Murgil Elg. 27 (Kad. nes.)
Usurbil 35 – Pneumax-Txariduna Elg. 26 (Kad. mut.)
Aloña 16 – San Roke Elg. 29 (Inf. nes.)
Cometel Elg. 34 – Usurbil 12 (Inf. nes.)
Ordizia 18 – Ikus Elg. 35 (Inf. nes.)
Tolosa 22 – Bankoa Elg. 20 (Inf. mut.)
Deca Elg. 22 – Zarautz 22 (Inf. mut.)

ESKU PILOTA

4 t'erdiko txapelketa
Lagunak 22 – Tartaloetxe 15 (Nag.)
Bergara 22 – Lagunak 16 (Nag.)
Tartaloetxe 22 – Lagunak 12 (Jub.)
Debarroko txapelketa
Bergara 22 – Lagunak 10 (Nag.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 10
11:30 Elgoibar – Aaretxabaleta (Kad. A.)
Domeka, 11
11:30 Elgoibar – Soraluze (Erreg.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 10
10:00 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad. mut.)
11:30 Astigarraga Elg. – Ordizia (Jub. nes.)
Domeka, 11
10:15 Sukia Elg. – Eibar (Aleb. nes.)
11:30 Ikus Elg. – Ereintza (Inf. nes.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Domeka, 11
11:30 Lagunak – Tartaloetxe (Nag.)
12:15 Lagunak – Soraluze (Nag.)

Herriarteko Pilota Txapelketa

Gaur hasiko da Herriarteko Pilota Txapelketa, eta lehenengo kanporaketan Ataun izango dute arerio elgoibartarrek. Joaneko partidak Ataunen jokatuko dituzte gaur bertan, 22:00etik aurrera, eta itzuliko partidak Elgoibarren izango dira datorren astean.

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka nahiz gauzez. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. ☎ **620 620 252**
- Neska umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Gauzez ere bai. ☎ **680 121 252**
- Emakumea edozein lanetarako prest. ☎ **620 258 708**
- Neska edozein lanetarako prest. ☎ **633 808 931**
- Neska edozein lanetarako prest. ☎ **633 244 397**
- Neska edozein lan egiteko prest. Orduka. ☎ **646 464 300**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai. ☎ **660 511 781 / 943 742 330**
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanetarako, tabernetan zein baserrian. ☎ **686 077 316**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ **622 201 534**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **622 037 598**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Gauzez edo asteburuetan. ☎ **631 414 397**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **686 420 642**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. ☎ **631 771 590**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. ☎ **631 724 749**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **632 662 947**
- Mutila eskaintzen da portalak, garajeak edo ganbarak garbitzeko. ☎ **620 710 139 (Aitor)**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **631 343 232**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **636 362 251**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Geriatria ikasketak eta esperientzia handia. ☎ **632 253 170**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest, orduka edo interna. Esperientzia handia. Garbiketarako egiteko prest. ☎ **616 457 254**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**
- Emakumea lanerako prest: adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko... Edozein lanetarako prest. ☎ **632 836 130**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Elgoibarren zein Mendaron. Gauzez ere bai. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Orduka. ☎ **699 232 823**
- Gizonezkoa lan bila. Elikagaiak manipulatzeko agiria daukat. ☎ **677 866 495**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako. Elikagaiak manipulatzeko agiria daukat. ☎ **678 292 120 / 602 473 663**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokariuran. ☎ **631 343 232**
- Pisua alokatzen dut erdialdean, Kalegoen plazatik gertu. Bi logela, etxetresna berriak. Berritua eta altzariekin. Prezioan Internet barne. ☎ **660 056 240**
- Logela bakarreko etxea alokatzen dut, Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Nalara)**

PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak ematen ditut, LH5-6 eta DBH1-2 mailetan. Esperientziaduna. Eki ordenagailu programarekin, euskaraz zein gaztelaniaz. ☎ **699 477 611**

GARAJEAK

- 44m2-ko garajea alokatzen dut Jausoron. ☎ **943 742 322 / 675 403 763**

KINTOAK

- 1954an jaiotako bazkaria Sigman, maiatzaren 31n. 12:30ean erretratua atera eta luntxa egingo dute, Txarridunan. Bazkaria 14:30ean, dantza eta guzti. 58 euro sartu behar dira **maiatzaren 15erako** Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 21 0071056285.
- 1946an jaiotakoek Santanderrera egingo dute txangoa maiatzaren 17an. Irteera: 10:00etan, Txankakuan. 65 euro sartu behar dira Kutxabanken: 2095 5036 50 9113833018.
- 1949an jaiotako bazkaria ekainaren 7an, Sigma jatetxean. 12:30ean argazkia parrokiako arkupean, eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. 55 euro sartu behar dira La Caixan, maiatzaren 30erako: 2100 4168 75 2100281986.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Azkeneko batzarrean bizilagun batek esan zigun aspaldian ez genuela portalean inolako al-daketarik egin, eta ondo irizten bagenion behintzat, bera aldaketa batzuk egiteko prest egongo litzatekeela esan zigun. Ondo iruditu zitzaigun guztioi. Bizilagun horrek bi lanpara berri, bi koadro, Teka egurrezko eserleku bat, eta bi alfombra erosi eta jarri ditu, eta 3.000 euroko faktura aurkeztu dio presidenteari. Presidenteak idatziz eman digu guri egindako aldaketa horien eta lan horien gastuen berri. Onartzen dut oso polita gelditu dela, baina gutako batzuri gehiegizkoa iruditu zaigu gastua, are gehiago kontuan hartzen badugu aurrezki-libretan 300 euro baino ez zaizkigula gelditu.

Zuek guztiok onartu zenuten portala edertzeko aldatetarako egitea eta bizilagun horrek asmatu du itxuraz. Zuetako gehienok onartzen duzue, gainera, bizilagun horrek irizpide estetiko egokiak erabili dituela, baina ez zatotzela bat prezioarekin. Zuek, baina, ez zenioten zehaztu zenbat diru erabili zezakeen. Zoritxarrez, halakoak sarri gertatzen dira bizilagunen artean, sarri askotan eztabaidak saihestearren. Bizilagun batzuk ez dira inplikatzeko eta komunitatearen mesederako lanerako prest agertzen diren bizilagunei ez zaie kontrarik egiten. Egoera deserosoa izan arren, bizilagun horrek gastuen fakturak aurkeztu baditu zuek ezingo duzue onartu besterik egin, azken batean gai hori eztabaidatu zenutenean begi onez ikusi zenutelako guztiok.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak **Irune Arriolari** etzi jaunartze eguna duelako. Etzekoen eta bereziki ahizpa Garazi eta lehengusu Julenen partez.



• Zorionak, **Unax**, 28an 6 urte bete zenituelako. Etzekoen, eta bereziki, Oierren partez.



• Gure **printzesari** mila zorion eta muxu handi bat.



• Zorionak, **Gadea!** Eskerrik asko lau urte zoragarri hauengatik. Maite zaitugu! Etzekoek, amatxok, aitatxok eta bereziki, Marenek.



• Zorionak, **Nerea**, maiatzaren 1ean 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, familiako guztion partez.



• Zorionak, **Izaro**, gaur 10 urte egin dituzulako. Anaia Urkoren, gurasoen eta familiako gainerakoen partez.



• Zorionak **Saioa** sorgintxoari seigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, etzekoen partez.



• Zorionak, **Haizea**, gaur 10 urte beteko dituzulako. Ama, osaba-izeba eta aiton-amonen partez.



• Zorionak, **Alex**, maiatzaren 6an 5 urte bete zenituelako. Ama, osaba-izeba eta aiton-amonen partez.



• Zorionak, **Haritz**, asteartean 3 urte bete zenituelako, eta ongi-etorri, zuri, **Iker!**. Muxu handi bana, etzekoen eta lagunen partez.



• Zorionak, **Urko**, 6 urte bete dituzulako. Familiakoen partez, eta bereziki Kaieten partez.



• Zorionak, **Enara**, neska handi, maiatzaren 1ean 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, familiako guztion partez.



• Poz-pozik pasatu zure bigarren urtebetetze eguna. Zorionak, eta muxuak, familiako-en partez.




• Zorionak, **Ibai**, hilaren 2an 5 urte egin zenituelako, eta baita amama Loreri ere maiatzaren 8an urteak egin zituelako. Familiakoek.



• Zorionak, **Unai**, aste honetan 10 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, etzekoen, eta bereziki, Martinen partez.



• Zorionak, **Manoli eta Angel**, urrezko ezteiak ospatuko dituzuelako. Maiatzaren 9an ezkondu zireneten, orain dela 50 urte. Ondo-ondo pasa!



• Zorionak **Jon eta Lucia**, familiako guztion partez.



• Iaz urrezko ezteiak ospatu ondoren, aurrerantzean berezixa izango da gurian maiatzaren 11. Zorionak, eta urte askotarako. Etzekuak.




• Zorionak, **Jon**, maiatzaren 3an 3 urte egin zenituelako. Patxo handi-handi bat, etzeko guztion partez.




• Zorionak, **Julen eta Paula**, zuen laugarren eta bosgarren urtebetetze egunean. Muxu potolo bana!




• **Ivan eta Monica**... Iritsi da azkenean zuen eguna. Zorionak eta ondo pasa, bikote. Koadrilako-en partez.



• Zorionak **Maren eta June**, zuen bederatzia eta hamabigarren urtebetetzean. Patxo handi bana, familiako guztion partez..




• **Oier**, zorionak, ononak. Tori zure tarta, egizu putz, putz, puuutz.



• Zorionak, **bikote**, 12 eta 10 urte bete dituzuelako. Familia osoaren partez.



• Zorionak, **Sare eta Beñat**, zuen bosgarren eta bederatzigarren urtebetetzean. Patxo bat, familia osoaren partez..



• Dantzari eta irakasle bikainak izateaz gain, sekula irribarrerik ez galtzen erakutsi diguzuelako, bihotz-bihotzez eskerrik asko, **Ane eta Maialen**.



• Zorionak, **Intza**, apirilaren 20an 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, bereziki Martinen partez. Maite zaitugu.



• **Nahia**, hau da, hau! Denak maiatzean! Aita 6an, ama 8an eta Ibon 10ean. Laster zureak.

9 barixakua

Erakusketa

18:30 Eskuz taldearen lanak
Eskuz arte eskolan eginiko lanak jarriko dituzte ikusgai hilaren 24ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Aisialdia

17:30 Kiribilen itzulera
Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

Musika

20:30 'Gabrielen lekua'
Gabriel Arestiri buruzko musika emanaldia, Herriko Antzokian.

Kontzertua

20:30 'Oude'
Musika lasaia eskaintzen du musikari bikote honek. Txarriduna jatetxean.

10 zapatua

Kirola

6:00 Morkaikoren Eguna
Elgoibarko Mendi Itzulia eta itzultitxoia egingo dituzte, eta finalista eguneko dominak ere banatuko dizkiete umeei. Eguerdian bazkaria egingo dute Kalegoen plazan.

Gure Esku Dago Mendaron

12:00 Kalejra
13:30 Herri kirolak
Herriko Enparantzan.
14:15 Erretratua
14:30 Herri bazkaria
Frontoian.
17:00 Bertsolarien agurra
17:30 Inozentzio pailazoaren saioa
Frontoian.
18:30 Trikipoteoa
23:00 Erromeria, 'Eromeria' taldearekin
Frontoian.
Ondoren, DJ Pius

Musika

22:30 Kontzertua
Marco&Cilker y son
Californianos taldearen kontzertua, Txarriduna jatetxean.

11 domeka

Kultura

11:00 eta 12:30 Arnoko sekretuak
Arnori buruzko ikuskizuna eskainiko dute Mendaroko 50 bat umek, San Agustin kulturgunean.

15 eguena

Hitzaldia

19:00 Europako Hauteskundeak
EHBilduk antolatuta, Pello Urizar izango da hizlaria. Kultur Etxeko sotoan.

16 barixakua

Zinea

21:30 Bideo Forum
Mi vida sin mi filma eskainiko dute, eta Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

ZINEA

«Noé»

10, zapatua:
19:00/22:15* (VOS)
11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:30



Udalekuak antolatu ditugu Mundakan! Uztailaren 7tik 13ra! Izena emateko azken eguna: maiatzak 18.



Oraindik ez zara bazkide? Hemendik ikasturte bukaerarako kuota 15 eurokoa da. Informazio gehiago ludotekan

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
9 Etxeberria 10 Fernandez Goizez: Barrenetxea 11 Fernandez 12 Yudego 13 Zabaleta 14 Barrenetxea 15 Ibañez 16 Garitaonandia	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larraldietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea GINEKOLOGOA

Urkizu, 13

943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA
Eibarko
Centro Médico
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com

www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari
eta pazientearekiko tratu atseginari
custen jarraituko diogu.

II. URTEURRENA

ANGEL MARI ARREGI CANO



*Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.*



2012ko maiatzaren 11n hil zen

Familiakoak

II. URTEURRENA

ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA



*Gure ondotik joan zinela
bi urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre ta alaitasunaz
gogoan bizi gera gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.*

Zure familia

2012ko maiatzaren 7an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen du
II. urteurrenaren meza ospakizunera agertu izana.

II. URTEURRENA

ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA



*Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza buruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
koadrilako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan*



2012ko maiatzaren 7an hil zen
Elgoibarren

Koadrilako lagunak

Anchústegui

www.anchustegui.com

Orain gehiago eskaintzen dugu. Lurzoru laminatua eta margoztutako paperak etxea berritzeko. Zatoz, gure produktu berriak ezagutzera.

LURZORU LAMINATUAK



Instalazio erraza eta azkarra. quick-step sistema

- Urraduren kontrako akaberadun lurzorua
- Mantenu lan gutxi eskatzen duena
- Aukera handia

MARGOZTUTAKO PAPERAK



Paperak lisoak izan daitezke, baina baita marra dotoredunak eta diseinu klasikodunak ere. Horiek guztiek freskotasuna ematen dute, ehunak, koloreak eta argiztapena ondo uztauz gero. Eta jakina, kalitatea eta edertasuna zainduta, harmonia handiko espazioak sortuta eta dekorazio fina erabilia.

BURDINDEGIA

Hemen daukazue Udaberri-udako katalogoa. Zatoz zurearen bila. Harrituko zara gure prezioak ikustean.

- Lorategiko altzariak
- Jantzitegiak eta babesgarriak
- Margoak
- Material elektrikoa
- Iturgintza
- Eskuzko erremintak
- Erreminta elektrikoak
- Burdindegi industriala
- Eraikuntzako materialak
- Etxeko tresnak

LILY BARBAKOA



249€

PROPANO GAS BIDEZKO PAELLA EGITEKO SUA




13,95€
aurtera

MOON BESAULKI TOLESGARRIA
(kolore ezberdinetan)



64'95€

PAELLA EGITEKO SU LANDUA



2'80€



ZERMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PAPERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK

